

## Hizlaria

Clotilde Olan Múgica  
Historialaria



“pertsona  
bakoitzak, bere  
bizitzaz gain,  
komunitatearen  
historian parte  
hartzen eta  
gidatzen du”

## PAREGABEKO PERTSONAIAK

Amalur Fundazioak eskatua, *“Paregabeko Pertsonaiak”* izeneko Laudioko Oroimen Kolektiboa lanaren atala aztertzea erabaki nuen, era horretan, aintzat hartzea eta mirespena merezi duen lanari nire ekarpena emanaz.

Argitaratu den lanak oso hausnarketa sakona merezi du. Irakurle bezala, oso lan atsegina dela esan behar dut, oso erraza baita irakurtzen eta konprenitzen. Liburuzaina naizen bezala, argitalpen hau ona dela azpimarratu nahi dut, baita ondo aurkeztua eta zuzenki egituratua. Gainera, argitalpen honetan biltzen diren gaiek eta kontakizunek oso zabala den erabiltzaileen jakin-mina ase dezakete. Hori dela eta, historialari baten ikuspegitik, oso egoki eta zuzen deritzot egindako lan honi.

Bestalde, iturrien berreskurapen eta bilketa lan honek komunitate zehatz baten berreraiketa historikorako abantaila handiak dakartza.

Prozedura honengatik izango ez balitz, oroimen kolektiboaren berreskurapena ezinezkoa litzateke, eta era honetan, pertsonai hauetako asko ez ziren gerora oroituko. Gainera, lan honek historiaren demokratizazioa ekarri digu; ohiko metodoa jarraituz berez historian txoko bat irabazi dutenak (José Arrue, Ruperto Urquijo...) bestelako pertsonaiekin batera agertzen dira, euren bizipen eta egitekoak ez lirateke inoiz argitalpen historikoetan agertuko, lan honengatik izango ez balitz. Eguneroko errealitateak berebiziko garrantzia izan du lan honetan, are gehiago, pertsona bakoitzak, bere bizitzaz gain, komunitatearen historian parte hartzen eta

gizatzen du.

Lan honek eman duen argitalpena orekatua da: pertsonai ospetsuekin batera arruntagoak aurkitzen dira, gizon eta emakumeen bizitzak biltzen dira (ordurarte ikustezinak izan diren emakumeak) eta Laudion jaiotako jendea Laudion eta laudiarrentzako bizi izan direnekin nahasten dira.

## PUBLIKOAREN PARTE-HARTZEA

Eztabaida Forora azaldutakoen hartean, gehien entzun zen iritzia zera izan zen: beste laudiar askoren bizitzak berreskuratu behar dira. Era horretan, José María Urquijo y Gardezabal, Casimiro Villa edota Alejandro Navarroren inguruko istorioak kontatu ziren. Hau dela eta, Amalur Fundazioak beste pertsonaien bizipenak berreskuratzeko bidea zabalik uzten du.

